# DEIALDIAREN BERARIAZKO 31.ZK. ERANSKINA

## HIZKUNTZA PAISAIA

## EUSKARATZEKO DIRU-LAGUNTZA

## DEIALDIA 2018

# ANEXO ESPECÍFICO DE CONVOCATORIA Nº 31

## SUBVENCIONES PARA LA EUSKALDUNIZACIÓN DEL PAISAJE LINGÜÍSTICO

## CONVOCATORIA 2018

### 1. AURREKONTU KREDITUA

Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da **15.000 euro** baino gehiagokoa izango, A-1988/2018 agiri kontablearen kargura 2018ko ekitaldiko 1.1010.481.01.335.20.2018 aurrekontu aplikazioari egotziak.

Aipatu epean aurkeztutako eskariak artatuko dira erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte egon litezkeen kreditu gehitzeak ere aintzat hartuz. Deialdi honen epearen indarraldian zehar kreditorik ez egoteagatik ezetsi diren eskariak hurrengo deialdian eskubidea sortuko dute.

### 1. CREDITO PRESUPUESTARIO

La dotación económica no superará los **15.000 euros**, imputables a la aplicación presupuestaria 1.1010.481.01.335.20.2018 del ejercicio 2018 con cargo al documento contable A-1988/2018.

Las solicitudes presentadas en el plazo establecido se atenderán hasta agotar el presupuesto disponible, incluidas, en su caso, las incorporaciones de crédito. Las solicitudes que se hubieran denegado por falta de crédito en este periodo determinado, causarán derecho en las siguientes convocatorias.

### 2. HELBURUA

Deialdi honen xedea da establezimendu, elkarte edota enpresetako hizkuntza paisaia euskaratzeko ekimenetarako diru-laguntzak arautzea, ekimen hauek 2018ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31ra bitartean gauzatu badira.

### 2. OBJETO

Es objeto de la presente convocatoria regular la concesión de subvenciones a establecimientos, asociaciones o empresas, para acciones de euskaldunización del paisaje lingüístico en el periodo de tiempo comprendido entre el 1 de enero y el 31 de

diciembre de 2018.

Diru-laguntzotan laguntzen direnak hauek dira:

a) Irudi korporatiboa, honako elementu hauek biltzen dituelarik: kartazalak, menbretedun orriak, bisita txartelak, entitatearen identifikazio zigilua, albaranak eta fakturak euskaraz edo euskaraz/gaztelaniaz jartzeko diseinu lanak. Diseinu lanaz gainera elementua bera ere diruz lagundu ahalko da.

b) Errotulazioa, honako elementu hauek biltzen dituelarik: kanpoko nahiz barruko errotuluak, lan ordutegia edo baliokidea, toldoak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa.

c) Web orriak: euskaraz erabili ahal izateko egiten diren web orrien edo atarien lanak

d) Esatariak: Irunen antolatutako jendaurreko ekitaldietarako esatari euskaldunen lanak laguntzea.

e) Euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egindako publizitatea idatzizko hedabideetan (egunkari, aldizkari...) edota ikus-entzunezkoetan (irrati, telebista..).

Los gastos subvencionables son los siguientes:

a) Imagen corporativa, dentro de la cual se recogen los siguientes elementos: trabajos de diseño para poner en euskera o euskera/castellano sobres, hojas con membrete, tarjetas de visita, sello de identificación de la entidad, albaranes y facturas. Además de los trabajos de diseño se podrá subvencionar el propio elemento.

b) Rotulación, dentro del cual se recogen los siguientes elementos: rótulo principal externo e interno del establecimiento o empresa, horario de trabajo o similar, toldos y rotulación de vehículos comerciales.

c) Páginas Web: trabajos de las páginas o portales web para que puedan ser usadas en euskera.

d) Presentadores/as: trabajos de presentación en euskera en actos públicos organizados en Irun.

e) Publicidad realizada en euskera o en euskera y castellano en medios de comunicación escritos (periódicos, revistas...) y/o audiovisuales (radio, televisión...).

## 3. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Lehiarik gabeko konkurrentzian eta ebaluazio indibidualizatua.

## 3. PROCEDIMIENTO DE CONCESION DE LA SUBVENCION

Concurrencia no competitiva y evaluación individualizada.

## 4. ONURADUN IZAERA LORTZEKO BALDINTZAK

Diru-laguntza hauek eskatu ahal izateko hauetako kasu batean egon behar da, betiere lehenengo atalean aipatutako sustatze-jarduera horren helburu den esparruan sartzen badira eta deialdi honetako zazpigarren artikuluan xedatutako baldintzak betetzen baldin badituzte.

- Euren establezimendua Irunen duten merkatariak eta ostalariak.
- Enpresa Irunen duten enpresarioak edo eta autonomoak.
- Kalean Bai hitzarmena sinatuta duten aisi, kirol edo guraso elkarteak.

Diru-laguntza deialdi honetara ezin dira aurkeztu bere kapital gehiena publikoa duten entitate pribatuak eta fundazio-ondarea edota gobernu- edo zuzendaritza-organoetan partaidetza nagusiki publikoa duten entitateak.

Diru-laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Ez du diru-laguntzarik jasoko gaizki idatzita edo oker gramatikalik duen errotulurik. Irungo Udalak doaneko itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eskainiko die interesatuei testuen zuzentasuna bermatzeko (Euskara Arloa - 943 505 272 - euskara@irun.org).

## 4. REQUISITOS PARA OBTENER LA CONDICION DE BENEFICIARIO

Podrán solicitar estas subvenciones todas aquellas personas interesadas que estén en alguno de los siguientes casos siempre y cuando se ajusten al objetivo de esta convocatoria y cumplan los requisitos marcados en el artículo séptimo de esta convocatoria.

- Aquellos/as comerciantes, hosteleros/as que tengan su establecimiento en Irun.
- Empresarios/as y/o autónomos/as que tengan su empresa en Irun.
- Asociaciones de tiempo libre, deporte, o asociaciones de padres y madres que hayan firmado el convenio Kalean Bai.

Quedarán excluidas de esta convocatoria las solicitudes formuladas por entidades privadas de capital mayoritariamente público y aquellas cuyo patrimonio fundacional o cuya participación en los órganos de gobierno o dirección sea mayoritariamente pública.

Para poder optar a las subvenciones las y los beneficiarios tienen que cumplir los siguientes requisitos:

a) No recibirán subvención aquellos rótulos que estén mal escritos o tengan errores gramaticales. El Ayuntamiento ofrecerá a las personas interesadas un servicio gratuito de asesoramiento y traducción para garantizar que los textos sean correctos (Euskara Arloa - 943 505 272 -

euskara@irun.org).

b) Izen propio, toponimo, akronimo eta abizenak soilik adierazten dituzten errotuluek eta gainerako elementuek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

b) No percibirán ayudas los rótulos y elementos en el que sólo consten nombres propios, topónimos, acrónimos o apellidos.

c) Entitate eta elkarteen kasuan, Udalarekiko interlokutorea beti izango da erregistroan ordezkari gisa inskribatutako pertsona/k.

c) En el caso de asociaciones o entidades, el/la interlocutor o interlocutores con el Ayuntamiento siempre serán las inscritas en el registro correspondiente.

**5. ESPEDIENTEA BIDERATZEA, ERABAKIA HARTZEA ETA JAKINARAZTEA**

**5. INSTRUCCIÓN DEL EXPEDIENTE, RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN**

a) Prozeduraren instrukzio-organoa Normalizazio Saila izango da eta organo hori osatuko dute Euskara Arloko teknikari espezializatuek eta Normalizazio Arduradunak.

a) El órgano de instrucción del procedimiento será el departamento de Normalización, que estará integrado por personal técnico especializado adscrito al departamento y el Responsable de dicho departamento.

b) Instrukzio organoak pertsona edo erakunde onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, automatikoki egiazta daitezkeen irizpideak kontuan hartuz.

b) El órgano de instrucción verificará el cumplimiento de los requisitos necesarios para adquirir la condición de persona o entidad beneficiaria, en base a los requisitos de apreciación automática.

**6. BALORAZIO BATZARRAREN OSAKETA**

**6. COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN DE VALORACIÓN**

Ebaluazioa Balorazio Batzordeak egingo du. Batzordea osatuko dute Euskara Ordezkariak, Euskara Arloko zuzendariak eta Normalizazio Zerbitzuko arduradunak.

La evaluación será llevada a cabo por la Comisión de Valoración, compuesta por la Delegada de Euskera, el jefe del Área de Euskera y el responsable del Servicio de Normalización.

## 7. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdiaren laburpena GAOn argitaratzen den hurrengo egunetik **2018ko abenduaren 31** artekoa izango da, azken hau barne.

## 7. PLAZO DE PRESENTACION DE SOLICITUDES

Desde el día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el BOG hasta el **31 de diciembre de 2018**, inclusive.

## 8. ESKAERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO BERARIAZKOA

Deialdiaren baldintza orokorretan adierazitako dokumentazioaz gain, eskaera aurketen den modua dela ere, erantsi beharko zaio:

- NIF edo IFK agiriaren fotokopia.
- Egindako lan(ar)en faktura(k)
- Aurkeztutako elementu(ar)en zerrenda
- Jasotako diru-laguntza 2. artikuluan adierazitako xedea bete delako adierazleren bat:
  - Emanaldiaren grabazio laburra, esatarien kasuan soilik.
  - Jarritako elementu(ar)en argazkia(k).
  - Publizitate iragarkia erabilitako bertsioan (papera, bideoa...)

Eskatzailea den pertsona fisiko edo juridikoak interesgarritzat jotzen duen edozein dokumentu aurkeztu ahal izango du, aurrekoen osagarri.

## 8. DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA A PRESENTAR EN LA SOLICITUD

Además de la documentación indicada en las condiciones generales de la convocatoria, independientemente del modo en que se presenten las solicitudes, deberán acompañarse de:

- Fotocopia del CIF del solicitante.
- Factura(s) de los trabajo(s) efectuado(s)
- Relación de los elementos presentados.
- Muestra del objeto motivo de la subvención definido en el artículo 2.
  - Breve grabación de la presentación sólo en el caso de los/las presentadores/as.
  - Fotografía(s) del elementos(s) colocado(s).
  - Anuncio publicitario en la versión emitida (papel, video...)

Esta documentación podrá ser complementada por cuanta otra que considere de interés la persona física o jurídica solicitante.

## 9. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA

Merkataritza eta ostalaritzako establezimenduetako eta enpresetako irudi korporatiboa, kanpoko nahiz barruko errotulazioa eta web orriak euskaraz jartzeagatik edota publizitatea euskara hutsean egiteagatik aurkeztutako aurrekontuaren %75eko diru-laguntza emango da. Diru-laguntza, gehienez ere, 1.000 eurokoa izango da.

Merkataritza eta ostalaritzako establezimenduetako eta enpresetako irudi korporatiboa, kanpoko nahiz barruko errotulazioa eta web orriak eta publizitatea euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik aurkeztutako aurrekontuaren %50eko diru-laguntza emango da.. Diru-laguntza, gehienez ere, 600 eurokoa izango da.

Esatarien kasuan, aurkeztutako aurrekontuaren %100eko diru-laguntza emango da, orduko prezioa gehienez 40 eurokoa izango delarik.

Diru-laguntza epe bakarrean ordainduko da onuradunek deialdi honen seigarren atalean aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren.

## 9. IMPORTE Y PAGO DE LA SUBVENCION

Se establece una subvención del 75% del presupuesto presentado por poner en euskera, la imagen corporativa, la rotulación tanto interior y exterior, así como las páginas web de establecimientos comerciales, hosteleros, y empresas o realizar publicidad íntegramente en euskera. Dicho importe no sobrepasará los 1.000 euros.

Se establece una subvención del 50% del presupuesto presentado por poner en euskera y castellano, la imagen corporativa, la rotulación tanto interior y exterior, páginas web de establecimientos comerciales, hosteleros, y empresas, y publicidad. Dicho importe no sobrepasará los 600 euros.

En el caso de los/las presentadores/as la subvención será del 100% del presupuesto presentado, estableciéndose un máximo de 40 euros la hora

La subvención se hará efectiva en un sólo pago una vez las y los beneficiarios hayan presentado la documentación citada en el artículo sexto.